

BALIO PROPOSAMENA:



IZENA: DryNGo



"DryNGo" izenak azkartasun-, komenentzia- eta eraginkortasun-sentsazioa transmititzen du.

1.Azkartasuna eta efizientzia: "Dry" k (lehorra) bere funtzio nagusiari egiten dio erreferentzia, hau da, ilea lehorteaz.

2.Praktikotasuna: "Go" k esan nahi du prozesua hain dela azkarra, ezen zure egunarekin jarrai baitezakezu denborarik galdu gabe. Oso egokia da mugitzen ari diren bitartean lehorte azkarra behar duten edo bizimodu lasaia duten pertsonentzat.

3.Bizimodu modernoa: Bi hitzen konbinazioak produktua bizimodu moderno eta dinamikora egokitzen dela iradokitzen du. Erraza eta konplikaziorik gabekoa da, eta horrek erakargarri egiten du konponbide azkarrak bilatzen dituzten kontsumitzaileentzat.

4.Mugikortasuna eta malgutasuna: "Go" ere lotzen da produktua zurekin "eramatearen" kontzeptuarekin, eta hori ezin hobea da bidaiatzen dutenentzat edo agenda okupatua dutenentzat.

Laburbilduz, "DryNGo" izenak konponbide praktiko, azkar eta irisgarri bat islatzen du denborarik galdu gabe lehorte eraginkorra bilatzen dutenentzat, ezin hobea ilea azkar eta eraginkortasunez lehortzen duen spray moduko produktu batentzat.

Gure produktuak proposatzen duen balioa berritzailea da. Haurren ilea bustitzean, azkar sekkatzeko konponbidea eskeintzen dugu, gainera eskoletan izateko ere balio du. Gure produktua, spray bat da ete efektibitate handiarekin funtzionatzen du. Ilean kantitatearen arabera, minutu bat edo gehiago pasatuta emaitza lortuko da.

Haurrentzako espezifikoki sortutako produktu bat da eta kontuan izan dugu haurren ilea nolakoa den eta hauen ezaugarri desberdinak.

Produktuaren konposaketaren sorkuntzari eta osagaien aukeraketari denbora asko eman diogu eta esperimentazio asko egin da egokiena aurkitzeko. Baita ere diseinuari, haurrentzat eta gurasoentzat erakargarria izateko. Itxurari buzruz, argazkian ikus daiteke pote koloretxuak eta erakargarriak direla.

Edozein ile motarako balio du, besteak beste:

1. Ile leuna
2. Ile ondulatua
3. Ile kizkurra/oso kizkurra
4. Afro ilea
5. Ile tirabiratsua
6. Edozein luzera motako ileak
7. Kaltetua dagoen ilea
8. Ile koipetsua

Erabiltzeko erreza da, enbasearen diseinua sinplearengatik eta spray moduko aplikadorea aukeratu dugunez, haur txikiek ere erabili dezakete. Haurrek erabiltzeko aukera dute, prozesuaren parte izateko. Bakarrik spray baten bidez produktua ile osotik botatzea da, oso erraza eta simplea.

Erosoa eta eramangarria da, horregatik tamaina desberdineko hainbat pote ditugu; handia (etxean izateko) eta txikiagoa (poltsoan edo motxilan sartzeko).

Produktuaren efektua azkarra da. Honekin lortu nahi duguna da ilea sekatzeko daraman denbora murriztea, bereziki etxean gertatzen ez diren egoeretan (parkean jolastean ilea bustitzen bada, bapatean euria egiten duenean, igerilekutik korrika ateratzean...besteak beste).

Azkenik, aipagarria da gure enpresa emakumeek soilik sortutako negozioa dela. Produktuaren ideia, prozesua eta negoziazioa dena emakumeek egindakoa izan da. Gure kasuan lau emakume gara eta uste dugu garrantzitsua dela gure enpresa bezalakoak laguntzea eta ahotsa ematea.

Gure enpresaren balioa kualitatiboa da, garrantzi handia ematen dugulako kalitateari eta denbora eta diru asko jarri dugu hau ondo ateratzeko.

